

IRAILAREN 1EKO 311/2020 EBAZPENA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIARENA, 2016-17KO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZARI DAGOZKION FAKULTATIBO ESPEZIALISTEN EZAGUTZA ESPEZIFIKOEN ETA FAKULTATIBO BIOLOGO TEKNIKARIEN KATEGORIETAN EUSKARAREN EZAGUTZA EGIAZTATZEKO PROBEN BEHIN BETIKO KALIFIKAZIOEN BERRI EMATEN DUENA.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bitartez onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko 2016. eta 2017. urteetan deitutako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak. Aipatutako Ebazpenaren 13.2. oinarrian aurreikusitakoaren arabera, horretarako deitutako egiaztatze-proben bidez egiaztatu ahal izango dira hizkuntza-eskakizunak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendariaren otsailaren 20ko 136/2020 Ebazpenaren bidez, 2016-17ko Enplegu Publikorako Eskaintzari dagozkion Fakultatibo Espezialisten ezagutza espezifikoaren eta Fakultatibo Biologo Teknikarien kategorietan euskararen ezagutza egiaztatze-probetara deitutako hautagaien behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako Zuzendariaren ekainaren 18ko 237/2020 Ebazpenaren bidez, 2016-17ko Enplegu Publikorako Eskaintzari dagozkion Fakultatibo Espezialisten ezagutza espezifikoaren eta Fakultatibo Biologo Teknikarien kategorietan euskararen ezagutza egiaztatze-proben behin-behineko kalifikazioen zerrenda argitaratu zen.

Beraz,

EBAZTEN DUT

Lehengoa.- 2016-17ko Enplegu Publikorako Eskaintzari dagozkion Fakultatibo Espezialisten ezagutza espezifikoaren eta Fakultatibo Biologo Teknikarien kategorietan euskararen ezagutza egiaztatze-proben behin betiko kalifikazioen berri ematea, Ebazpen honen I. Eranskinean jasotzen den bezala.

Bigarrena.- Kontuan izanik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121 artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa ezar dakiok Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendari Nagusiari, hilabeteko epean, Osakidetza webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 1ean




Osakidetza
Maria Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Iz.: Maria Pilar Uriarte Brizuela

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA

RESOLUCIÓN 311/2020, DE 1 DE SETIEMBRE, DE LA DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD, POR LA QUE SE HACEN PÚBLICAS LAS CALIFICACIONES DEFINITIVAS DE LAS PRUEBAS DE ACREDITACIÓN DEL CONOCIMIENTO DEL EUSKERA DE LAS CATEGORÍAS DE FACULTATIVOS ESPECIALISTAS DE CONOCIMIENTOS ESPECÍFICOS Y FACULTATIVOS TÉCNICOS BIÓLOGOS CORRESPONDIENTES A LA OFERTA PÚBLICA DE EMPLEO 2016-17.

Mediante Resolución 103/2018, de 5 de febrero, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se aprobaron las bases generales que han de regir los procesos selectivos para la adquisición del vínculo estatutario fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud convocados en los años 2016 y 2017. Conforme a lo previsto a base 13.2 de la citada Resolución, los perfiles lingüísticos podrán acreditarse mediante las pruebas de acreditación convocadas a tal efecto.

Mediante Resolución 136/2020, de 20 de febrero, de la Directora de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se publicó la relación definitiva de personas aspirantes convocadas a las pruebas de acreditación del conocimiento del euskera de las categorías de Facultativos Especialistas de conocimientos específicos y Facultativos Técnicos Biólogos correspondientes a la Oferta Pública de Empleo 2016-17.

Mediante Resolución 237/2020, de 18 de junio, de la Directora de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se hacen públicas las calificaciones provisionales de las pruebas de acreditación del conocimiento del euskera de las categorías de Facultativos Especialistas de conocimientos específicos y Facultativos Técnicos Biólogos correspondientes a la Oferta Pública de Empleo 2016-17.

En su virtud,

RESUELVO

Primero.- Hacer públicas las calificaciones definitivas de las pruebas de acreditación del conocimiento del euskera de las categorías de Facultativos Especialistas de conocimientos específicos y Facultativos Técnicos Biólogos correspondientes a la Oferta Pública de Empleo 2016-17, según lo contenido en el Anexo I de la presente Resolución.

Segundo.- Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Director General de Osakidetza, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en la web de Osakidetza, de conformidad con el artículo 121 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de setiembre de 2020.



Osakidetza
María Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Fdo.: Maria Pilar Uriarte Brizuela

DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD